

Erreur !

AHAT

NON DA HERRIA ? Baxe Nafarroan, Gara eta Iratiren artean .

BIZTANLEAK : 320 biztale badira Ahatsan .

HEDAPENA : 2000 hektara mendiarekin .

KARTIER : Badira zortzi kartier Ahatsan : Ahatsa, Alzieta, Bazkazane, Ahatsa xilo, Alzieta xilo, Bastida, Uhaize, Lieta Bixkarre .

MUGAK : iparraldean : Duzunaritze ; ekialdean : Lekunberri ; hegoaldean : Ezterenzubi ; mendebaldean : Ainzile eta Donazaharre .

BEREZITASUNAK : Badira bi gauza ikusteko Ahatsan. Lehena dolmen bat Buluntzan Bazkazaneko mendian, eta bestea Ahatsa erdi-erdian dorre zahar bat (lehengo Gaztelu baten hondarrak) .

HISTORIA : Ahatsako patroina Jondoni Julen zen. Gizon hori bizi zelako dorre hartan erromanoen denboran . Gizon hori orduko jaun bat zen, eta erlijoa hastapenean apeztu zen eta bere maitea serora joan zen . Biek egin zuten konbentu bat Ahatsan oraiko elizaren ondoan . Erromanoek gaizki ikusten zuten Julen preso ereman jujatu eta luhoiner bota zuten . Gero biziki berantago bi herri ttipi lotu ziren Ahatsari (Bazkazane eta Alzieta) .

AKTIBITATEAK : Beste herrietan bezala badira ainitz aktibitate (besta komiteak eta jimnasia leku eder bat . Bada ere esker pareta eta badira ainitz pilota partida . Ainitz langile badira Ahatsan .